

JULIO URKIJÓ jauna

(1871 - 1950)



Urte auetan Urkijo jauna ere galdu du Euskaltzaindiak, gure elkargoa sortu zanetik euskaltzain izana.

Askok ez besteko lana burutu digu, eta alaz ere deus-gutxikotzat zeukan. Ori esaten zien ingurukoei bein ta berriro bere azken-aldian. Ez noski umil-itxurak egiteko, ala uste zuelako baizik. Izan ere, berak egiña asko izanik askotaz geiago baitzan besteei egin-arazia.

Paper eta liburu zaar billa zebillen beti, ez ordea zenkeriz beretzat gordetzeko, zenbait liburuzalek bezela. Ikusmiratzen edo erosten zuena guziori banatu arte etzan gelditzen. Orrexegatik dauzkagu orain esku-artean, ederki argitara emanak, Detxepare, Axular, Oihenart, Tartas, Etxeberri, XVI eta XVII'garren mendeko esaera zaarrak.

Idaz-lan labur, apaiñen bidez euskal-kulturaren historiari literaturari buruz, batez ere oiñarri sendoak ematen iñork ez bezela lagundu du. Amaika argitasun ez ezik besterik ere utzi digu: jakite-bide oietan barrena ibilli nai luketen ondorengoei ikasbide ederra. Gogor artzen zuen bere burua eta bai besteak ere. Bai baitzekien jakintzagaietan borondate eta asmo onak, onenak dirala ere, eztirala aski, eta etzitzaion iruditzen elkar zurikatuz ezer aurreratu ditekenik. Zeatz eta zorrotz neurtzen zuen beraz zer zan egia, zer egi-antzekoa, zer uste utsa; zer gertatua eta zer asmatua. Auxe gogorazi nai zigun nonbait: emen ere bide estu ta nekagarriak, zabal-atsegiñak alde batera utzirik, autetsi bear dirala, ongi ibilli nai ba'dugu.

Ortik zuen noski arrotz-zale zalako izena. Etzan gauzak dauden-daudenean artzen dituztenetakoa. Beretarre-

nak, etxekoenak, baldin ba'ziran batez ere. Arrotzengandik zer ikasia ugari ba'geneukalakoan zegoen. Zuzen, noski. Euskal-erria da, jakiña, euskal-kultura gaiak lantzeko lantegirik egokiena, sortzez eta izatez ortarako aukeratua. Baiña ezta berez, besterik gabe, alabear utsez, ikas-leku nagusi biurtuko. Ori jakiñik sortu zuen bere aldizkaria, lurbira osoan euskal-jakingaien berria zabaldu duen RIEV ura. Eta ortara zuzendu zituen gero ere bere alegiñak.

Bere asmoak — gere asmoak — bizi dira oraindik. Eta gure artean dago, bere ikasbideaz gaiñera, bildu zigun liburutegi aberatsa, bere naiak betetzeko, ain gogoko izan zuen euskera goi-maillara jasotzea aztu gabe. Urkijo jaunaren bizitza eta lanei buruz edozein argitasun nai duenak «Homenaje a D. Julio de Urquijo»'ren leenbiziko liburura jo dezake.

L. M.

JUAN CARLOS DE GUERRA

(1860 - 1941)



Nork aditu eztu ots aundiko izen au. Genealogi eta Heraldika kontuan aparteko itzala bereganatu duen izena, alegia? Arrasate edo Mondragoin bizi eta lan egiten zuen, antxe baitzuen bere jatorri edo leiñuko etxea, *Gerraenea* zeritzana. *Heráldica Vasca*-z egiñak dituen lan aundi ospetsuak eztitut emen aipatuko. nonai billa baititeke heroien berri. Bai, ordea, Arantzazuko Andre Mariaren omenez, euskeraz egiña duen liburua: «*Ama Virgiña Arantzazukoaren Kondaira*», Donostian, 1890. Liburu au Donostiko Lore-Jokuetan saristatua izan zan. Ortaz gaiñera, gure izkuntza zaarraz zer ikusi dutelako, aipagarri dira berberak egindako edizio auek ere: «*Viejos textos del idioma*» eta «*Los cantares antiguos del euskera*». Mondragoitarak Arantzazurakoan, urtecroko beren erromerian, kantatzen duten kanta eder ura ere, berberak tajutua da.

Donostian jaioa zan 1860 urtean eta bertan il 1941 garrenen. Goian bedi!